


Asiako kutsaduragatik Amerikako zikloiak bortitzago

2006KO IRAILAREN 1ETIK 2007ko apirilaren 10era arte bildutako datuetan oinarrituz, NASA espazio agentziak bideo adierazgarri batean kokatu du Asian kutsaduraren eraginez sortutako elementuen higidura.

Kutsadura-lainoak nonahi higitzen dira, eta euriaren bidez erortzen diren lekuetan alergia, asma eta arnasbideetako gaixotasunak areagotu ditzakete. Lekuan lekuko eragina neurteza ez da lortu, lainoak mundu osoko zeruetan bidaiazen dutela baino ez da ikusi. Hala ere gertaera bat garbi ikusi dute: Asian –batez ere Txinan– askatutako aerosolek, Ozeano Barea zeharkatzean, itsasoko ura xurgatzen dute, eta Amerikako mendebaldera heltzean ohi baino hodei trinkoagoak sortzen dituzte. Hodei horiek biziki lodiak dira Ozeano Atlantikora eta Karibera heltzean, eta oso zikloi bortitzak eragiten dituzte.

Gertakaria urtero errepikatzen ote den aztertzen ari dira, baina badirudi erlazio zuzena dagoela Asiako kutsaduraren eta Karibeko zikloien indarren artean. Halaber, kutsadura horrek Europako kliman eragina ote duen begiratzen ari dira. ■



NOAA

Urakana Karibearen gainean.

Basque Research webguneak adio

2002an, Elhuyar Fundazioaren bultzadaz eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, Euskal Herrian egiten zen ikerketaren berri ematen hasi zen Basque Research webgunea. Hamahiru urteotan sektoreko erreferentzia bilakatu bada ere, amore eman behar izan du, laguntzarik ezean. Euskal Herrian ikerkuntzarako datozen urte ilunen abisua ote?

www.basqueresearch.com
(Euskaraz)

Ahaztutakoa artifizialki berreskuratzeko bidea

Ikerketa baten arabera, ustez erabat ahaztuta dauden hainbat oroitzapenek garunean iraun dezakete, eta berreskuratu egin daitezke metodo artifizialak erabiliz. Alzheimer gaitzaren lehen faseetan daudenentzat itxaropenaren bidea zabal dezake albisteak.

ttiki.com/334987
(Gaztelaniaz)


Hatzak sudurzuloan sartzea, ona ala txarra?

Gure gizartean oso hedatua dago nor bere sudurzuloan ari-tzea. Mukiak kentzeko ala besterik gabe hor ari-tzeko. Txarra al da? Buru hainbat aburu dago gaiaren inguruan. Horrekin lotuta, mukiak jateak infekzioak prebenitzen lagundu dezakeela esan du Kanadako ikerlari batek; antza, hipotesiak ez du arrakasta handirik izan zientzia munduan.

ttiki.com/334989
(Frantsesez)

Alarma faltsua: iaz behatutakoa ez ziren grabitate-uhinak

ESA



Planck satelitearen marrazkia.

2014KO MAIATZEAN zenbait zientzialarik iragarri zuten unibertsoa lehen grabitate-uhinak izan zitezkeenak detektatu zituztela, Planck satelite europarrak jasotako datuetan oinarrituz (ikus ARGIA 2.410). Uhin horien presentzia ezinbestekoa da Big Bang teoria baieztatzeko. Haren arabera, leherketaren lehen unean Unibertsoa bilioika aldiz handitu zen, eta hori jazo izanaren frogetako bat grabitate uhinak lirake.

Zoritxarrez, hedabide eta zientzialari askok aurkikuntza handitzat jo genuena gezurtatu dute Genevan dagoen CNRSko ikerlariak, ziurtzat eman baitute Planck sateliteak detektatutakoak ez zuela grabitate-uhinekin zerikusirik izan. Zain egotea baino ez zaigu geratzen. ■

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com
T.943 37 67 16